

25/25 PRENTSA OHARRA

DBUSEN ZERBITZUEN ALDAKETAK AUZOETAN INAUTERIAK DIRELA-ETA

1) ALDAKETAK TRINTXERPEN

Martxoaren 7tik, ostirala, 9:00etatik, martxoaren 10era arte, astelehena, 9:00etara, gutxi gorabehera, **38-Trintxerpe-Altza Molinao** linean aldaketak egingo dira. San Pedrorantz, geltoki hauek kenduko dira: Euskadi Etorbidea-Azoka, Ricardo Arrillaga 6, Gran Sol 3 eta Bordaenea 2.

Era berean, honako aldaketa hauek egingo dira egun eta ordutegi hauetan:

- **Martxoaren 8an, larunbatean**, 16:00etatik 19:00etara gutxi gorabehera
- **Martxoaren 9an, igandean**, 16:00etatik 19:00etara gutxi gorabehera

Trintxerpen, **bukaerako geltokia Pasai San Pedro 25 izango da**. Geltoki hauek kenduko dira: Euskadi etorbidea 5, Euskadi Etorbidea-Azoka, Ricardo Arrillaga 6, Gran Sol 3, Bordaenea 2, Oiartzun 8, Ulia 22, Azkuene 35, Azkuene plaza eta Pasai San Pedro 4.

2) ALDAKETAK AMARAN ETA LOIOLAKO ERRIBERETAN

Martxoaren 8an, larunbatean, 16:00etatik 19:00etara gutxi gorabehera aldaketak egingo dira Loiolako Erriberetan eta Amaran:

- **26-AMARA-MARTUTENE, 27-ALTZA-INTXAURRONDO-ANTIGUO, 31-INTXAURRONDO-OSPITALEAK-LARRATXO eta 41-GROS-EGIA-MARTUTENE:**

-Erdialderantz, geltoki hauek kenduko dira: Bartzelona Hiribideko 35 eta 15; horiek **Zorroaga pasealekura** eramango dira, Victor Hugo kalearekiko bidegurutzearen ondora. Gregorio Ordóñez geltokia kenduko da eta beraz, 26 linea Madrid 5era, 27 linea Madrid 3ra eta 31 linea Anoetara lekualdatuko dira.

- **24-ALTZA-GROS-ANTIGUO-INTXAURRONDO, 26-AMARA-MARTUTENE, 31-INTXAURRONDO-OSPITALEAK-LARRATXO eta 41-GROS-EGIA-MARTUTENE:**

-Loiolarantz: Toribio Altzagako biribilgunetik Zorroaga pasealekutik jarraituko dute, Toribio Altzagako bidegurutzearen ondoan eta Otamendi Anaiak kalearen aurrean geldialdiak eginez Victor Hugo kalearen parean. Loiolako biribilgunetik bere ibilbideekin jarraituko dute.

Toribio Alzaga eta Bartzelona 10 eta 26ko geltokiak kendu egingo dira eta **Toribio Alzaga biribilgunearen eta Zorroaga pasealekuaren ondora eta Otamendi Anaiak kalearen parera** lekualdatuko dira.

• **37-RODIL-ZORROAGA**: 17:30etik 19:00etara gutxi gorabehera

- Zorroaga alderantz: Aldunaene eta Balleneros geltokiak kenduko dira eta aurreko eta atzeko geltokietara lekualdatuko dira (**Mundaiz Zubia eta Anoeta**).

3) ALDAKETAK ALTZAN

Martxoaren 9an, igandean, 10:30etik 14:30era gutxi gorabehera ondorengo aldaketak egingo dira Altzan:

• **13-ALTZA**

-Larratxo alderantz: Errotetako, Santa Barbarako, Anbulatorioko, Nerecaneko, Altzako Erdiguneko, Martilluneko, Leosiñetako eta Larratxo 46ko geltokiak zerbitzurik gabe egongo dira. Hurbilen dauden geltokiak: **Aitz Gain, Bertsolari Txirrita** edo **Larratxo**.

-Boulevard alderantz: Biankako, Leosiñeta Ilko, Lauaizetako, Altzako Erdiguneko, Larratxo 94ko, Larratxo 98ko, Arriberriko, Arria Parkeko, Pikabeako eta Herrerako Renfeko geltokiak zerbitzurik gabe daude. Hurbilen dauden geltokiak: **Aitz Gain, Bertsolari Txirrita, Larratxo** eta **Herrera**.

• **13-ALTZA-BUENAVISTA**

12:00ak arte gutxi gorabehera.

- Larratxo alderantz: ohiko ibilbidea egingo du.

- Boulevard alderantz: Larratxotik, Txingurri-Vallina alderantz bueltatuko da, eta handik Herrera pasealekurantz joko du, Peruene bidetik, Arri Berriko biribilgunera igoko da (behin behineko postea) eta bere ibilbidea berreskuratuko du Casares P.-Buenavistatik aurrera.

12:00etatik 14:30era: Boulevardaren eta Buenavistaren arteko zerbitzua baino ez da egongo.

Larratxoko, Biankako, Lauhaizetako, Altzako Erdiguneko, Larratxo 94ko, Larratxo 98ko, Arriberriko geltokiek eta Casares, Arrizar, Bertsolari Txirrita, Oleta eta Darietakoek ez dute 13-Altza-Buenavista linearen zerbitzurik.

• **24-ALTZA-GROS-ANTIGUO**

Lehen ordutik:

-Antiguo alderantz: Altzako geltoki guztiak zerbitzurik gabe egongo dira, Larratxo III-koa izan ezik. Hurbilen dauden geltokiak: **Larratxo III** eta **Herrera**.

-Larratxo alderantz: Marruseko, Leosiñetako eta Larratxo 46ko geltokiek ez dute zerbitzurik. **Larratxo III** da hurbilen dagoen geltokia.

- **27-ALTZA-INTXAURRONDO-ANTIGUO**

-Altza-Larratxo noranzkoa: Santa Barbarako, Nerecaneko, Altzako Erdiguneko, Martilluneko eta Larratxo 46ko geltokiek ez dute zerbitzurik. **Aitz Gain, Bertsolari Txirrita** edo **Larratxo III** dira hurbilen dauden geltokiak.

-Antiguo alderantz: ohiko ibilbidea Larratxotik.

- **31-INTXAURRONDO-ALTZA-LARRATXO**:

-Santa Barbara alderantz: Erroteta Behekoa eta Santa Barbara geltokiek ez dute zerbitzurik izango. Herrera Pasealekutik **Aitz Gain** geltokira iritsiko da (bukaerako geltokia).

-Santa Barbaratik Ospitaleetarantz: Altzako Anbulatorioko, Nerecaneko, Altzako Erdiguneko, Martilluneko eta Larratxo 46ko geltokiek ez dute zerbitzurik izango. Hurbilen dauden geltokiak 13-Buenavista linearen geltokiak izango dira: **Aitz Gain, Bertsolari Txirrita** edo **Larratxo III**. Hortik aurrera ohiko ibilbideari ekingo dio.

- **33-LARRATXO-INTXAURRONDO-BERIO**

Lehen ordutik

-Antigotik Larratxora: Leosiñetako eta Larratxo 46ko geltokiek ez dute zerbitzurik. **Larratxo I** da hurbilen dagoen geltokia.

-Larratxotik Antiguora: ohiko ibilbidea

- **38-TRINTXERPE-ALTZA-MOLINAO**

-Molinaotik Trintxerpera: Santa Barbarako, Nerecaneko, Altzako Erdiguneko, Martilluneko eta Larratxo 46ko geltokiek ez dute zerbitzurik. Hurbilen dauden geltokiak: **Aitz Gain edo Larratxo III**.

-Trintxerpetik Molinaora: Biankako, Lauhaizetako, Altzako Erdiguneko, Larratxo 94ko, Larratxo 98ko eta Arriberriko geltokiek ez dute zerbitzurik. Hurbilen dauden geltokiak: **Larratxo I edo Oleta**.

Informazio gehiago www.dbus.eus webgunean eta 900 840 146 telefono zenbakian.

